

INSTALAZIO ARTISTIKO PARTEHARTZAILEA

MANT'SODROMOA:

Xamurtasun Espazioa



ikertu 2019

AURKIBIDEA:

-PROPOSAMENA	3
-JOKO TAULA	4
-IKERKETA	6
-PLANGINTZA	12

PROPOSAMENA:

Burmuin eta gorputzak tarte batez mantsoagotzeko lekua da MANTSODROMOA, mantsoagotze horretatik pertsona bakoitzari bere Xamurtasuna eta Sormena jorrazeko espazio atsegin bat eskainiz.

Bizitzeko = Maitatzeko espazioak diseinatzeko proiektuaren barruan sortuko den INSTALAZIOA da.

Adeitasunetik haratago, eta sexualitatera ailegatu baino askoz lehenago...

badagoelako

tarte horretan

habitatu daitekeen

lurralde zabal bat...

XAMURTASUNA BIZI-KALITATEAREN KODEA DELAKO.

Bizitza prekariora gure gorputzetan hasten baita... eta pobreak izan gaitzke dirutan... baina inola ez plazerretan!

Normalean ibiltzen garen lekuetan ez baditugu afektuak eta mimitoak nahikoa askatzen... Sortu ditzagun **MaitHazteko Lekuak**, jar ditzagun beste modu batean egotera lagunduko diguten baldintza guztiak.

Espazio publiko guztiak ez duelako zertan hotz izan behar, bigun garen arren pertsonen arteko kristalezko harresiak gainditzea oso zaila delako... Has gaitzen gure gorputza ezagutu eta maitatzen, eta egin dezagun MANTSODROMOAn.

JOKO TAULA:

Informazio asko daramagu buruan eta gorputza... batzutan badirudi burua leku batetik bestera garraiatzeko besterik ez daukagula!

Gure gizarte europar honetan orohar nahiko hedatuta ditugu elkarrekiko errespetua eta adeitasuna, itxura batean bizikidetza baketsuan bizi gara. Harrigarria da, ordea, eremu sozialean (eta baita intimoan ere, askotan) ze kontaktu fisiko gutxi daukagun pertsonen artean, afektuak adierazteko nolako zailtasunak ditugun, ze hierarkizatuta dauden harreman afektiboak, argi markatuz norekin ikutu zaitezkeen eta noraino... eta hortik aurrera ezer gutxi.

Izan ere, gure gorputz propioarekin daukagun harremana oso funtzionala izan ohi da, eta gutxitan plazerrei loturikoa.

Bestalde, badira gure gizarte matxistan oraindik ere gure gorputzak eta sexualitatea lasaiki esploratzen eta bizitzen uzten ez diguten zenbait ezaugarri, sexologoen ahotan, laburbilduz:

-Emakumezkoen gorputzen merkantilizazioa, edertasun kanonaren bidez emakumezkoen euren gorputz propioa ez gustatzea sentiarazten diena, emakumezkoen arteko konpetentzia modukoa sortaraziz gainera.

-Emakumezkoen gozameneko izatea ukatzen zaie. Alabak euren plazerrarekiko urrunduta hezitzen dira, gozamen eta desiozko erreferenterik gabe, euren alua ezagutu gabe.

-Gizarte falokrata da, gizonezkoen plazerra eta sexualitatea zutunik dagoen zakilean kokatzen duena huts hutsean, eta haren eiakulazioan. Txortan egitea helburu izate hori xamurtasunetik eta maitasunetik oso urrun dagoen gauza izanik...

-Harreman sexual prototipikoa ezartzen zaigu -zakila bagina barruan- pertsonen arteko plazerrak hartu-emateko sumuma horixe balitz bezala, eta elkartze erotikoa nolakoa izan behar den inposatuz, jolasa ezinduz, erotika guztia baldintzatuz alde zurretiko gidoia bete behar izanagatik.

Panorama honekin, gure jarrerak aldatu ahal izateko lehen pausua gure gorputz propioa bilatzea da, beldurrik gabe, plazerra bilatuz errepresio ezberdinak uxatuta, gorputza osotasunez onartuz, debekurik gabe, ikasteko gogoz... gero hortik abiatuta besteekin elkartzera jo dezakegu nahi badugu, partekatze gogoz beti ere.

Xamurtasuna da plazerraren kode hori, eta xamurtasun horretan aurkitzeko lekuak behar ditugu. Adeitasunetik haratago joanez, eguneroko eskafandrak kenduz eta gure hauskortasunaren power guztia geureganatuz norberaren erotikarantzko bidaian. Plazerra ni neu naiz.

IKERKETA:

Nork bere xamurtasuna bilatzeko espazio kolektibo batek bete behar dituen baldintzak ikertzea eta diseinatzea du helburu proiektu honek.

Zergatik egiten dudan? Hain gozagarri izan daitekeen arren, nik dakidala orain artean ez delako halakorik existitzen: gizonak zein emakumeak bertara sartu eta piskanaka babes geruzak kendu eta xamurtasunean murgiltzea iradokitzen duen lekua.

Intuzio batzuk dauzkat eta ikerketa honetan buru belarri sartzeko gogo handia. Intuzio batzuk baditut. Eta galdera asko...

Xamurtasunaren bidetik MaitHazteko lekua nolakoa izan daiteke?

Zein babes geruza mota erantzi behar ditu pertsona bakoitzak xamurtasunean egoteko?

Zerbait somatu dezakegu:

Konfiantza eta segurtasunezko gune bat izan behar du, goxoa, atsegina, epela, iradokitzailea, juiziorik gabekoa, non pertsona bakoitzak, bere erritmora eta bere biografiaren arabera, bere ikerketa propioa burutu ahal izango duen.

Hemen azalduko ditut zenbait ideia, eta gero ikerketan murgildu ahala norabide batean edo bestean joko dut, beste pertsona batzuekin kontrastatuz ere. Mezuekin asko afinatu beharko da, jakina, eta elementu ezberdinak ondo erabili, erabiltzaile guztiak -ala gehienak bederen-

gustora sentitu daitezzen bertan:

-Espazioaren konfigurazioa: nondik sartu, nondik pasa, non gelditu...

Nolako altzariak dauden, dekorazioa...

-Argiztapena

-Audio girotzea: musika iradokitzaile eta goxoa, tarteka ahots goxoren bat sartuz agian

-Bideo proiektzio iradokitzailea: gorputzak laztantzen, muxuak...

-Aurikularrekin aditzeko audio xuxurlariak

- Mezuak emateko modu ezberdinak: txarteltxoetan, lekuetan idatzita, audioetan...

-Xamurtasunerako tresna edo material ezberdinak

SARRERA...

Aldez aurreko publizitatean informazioren bat jaso duzun arren, eta Mantsodromora etortzeko jakinmina izan duzun arren, kaletik etorri eta halako leku batera tupustean sartzea ez da pausu bakar batean egin daitekeen gauza. Zenbait mezu helarazi nahi zaizkio sartzen den pertsonari, babes geruzak erantzi eta piskanaka mantsotu, bigundu eta xamurtasun espazioan sartzeko prest egon dadin.

Mantsodromoa berez hau da, oinez zoazela, espaziora sartzen, gero eta mantsoago ari zaren leku hau, pisuak kendu eta arnasa ere geroz eta

lasaiago hartzen duzuna.

Korridore baten barrena sartzen bazoaz, mezuak piskanaka helarazi ahal dira, girotzen joateko. Inportantea da kaletik dakartzagun historiak (arazo, kezka, zeregin, ordutegi...) hemen geratzea barruratu baino lehen.

Mezu idatzi gehienak sarrera honetan helaraztea litzateke onena, gero barruan hitza ahalik eta gutxien erabiltzeko...

Jantzizaindegi bat egongo da ere kanpoan utzi nahi duzun hori bertan gordetzeko (lotsak, beldurrak, estresak, amorruek... zamarra, boltsoa, motxila, telefonoa... nahi duzuna!); eta zapatak (eta izan daitezkeen bestelako trabak) uzteko lekuren bat...

Arinagoak izan gaitezen, mantsoago eta goxoago izan ahal izateko...

MEZUAK:

Har ezazu zuretzako denbora bat

Poliki sartu, norbait lo balego bezela

Utzi hemen zure prisak, zure kaleko pentsamenduak

Hemen ez dituzu zure kezkak behar

Emaiozu zure buruari xamur izateko askatasuna

Bigundu zaitez

Utzi zaitez

Eskegi hemen zure pertsonaia

Poliki, politki

Hemen, zu zara inportanteena

Zure nahiak

Zure desirak

Zure grinak

Libre zara

Nahi duzun bezain libre

Egin nahi duzun ezer ez utzi egin gabe

Egin nahi ez duzun ezer ez egin

Nahi duzuna, uneoro

Xamurtasunaren besoetan kulunka zaitezke hemen

Hartu arnasa kontzientzia osoz

Kokatu gorputzean zehar dauzkazun tentsioak eta eraman

hara zure arnasa hartzerakoan

Besteen xamurtasuna errespetatuz, gozatu ezazu zurea

Gero eta mantsoago

Gero eta goxokiago

...

BARRUALDEAN...

Txoko ezberdinak izango dira, bionbo eta telak (edo lumentz egindako boekin egindako kortinak...) erabiliz banatuta, eta txoko bakoitzean proposamen ezberdinak topatuko ditugu.

Leku atsegina eta iradokitzailea izango da, epela, argi leunez, musika suabea, usain goxoa, fruta zukutsua, forma biguneko altzariak... materiale ezberdinak aurkituko dituzu sofa, koxin eta alfombra.

- Laztantzeko gustagarri izan daitezkeen objektuak.

- Etxateko leku biguntxuak.

- Zonalde batean paretetan muxuen argazki eta irudiak, baita muxuaren deskribapenak ere (literarioak, zientifikoak...).

- ISPILUA: gorputz osoko ispilu batean "hemen duzu zure maitalerik goxoen" idatzita dago karmin gorri.

- DANTZA: gorputz ezagumen eta gozamenean funtsezkoa da mugimendua, dantza, norberak ulertu nahi duen moduan ulertuta. Ikerketa esparru bat da dantza nola erabili.

- PROPOSAMEN TXARTELAK: mahai batean bi saskitxo egongo dira txarteltxoekin:

*Batean xamurtasunean **nor bere buruarekin** murgiltzeko jarduerak gonbitak egongo dira.

Adibidez:

- Jar zaitez eroso, itxi edo estali begiak eta zure buruari lasterrik xamurrenak egiteko baimena eta denbora guztia eman mugarik gabe.

- Hartu zure bihotzaren taupadak -bularrean, eskumuturrean...- eta erritmo horretan sar zaitez, mugitu zaitez erritmo horretatik abiatuta).

- Fruta zati bat zure desio eta plazer gaitasun handienarekin poliki poliki jan.

*Bigarrean **beste norbaitekin batera** xamurtasun jolasak egiteko proposamenak egongo dira.

Adibidez:

- Beste norbaiten aurrean jarri, elkarren begietara begiratu eta gero galdetu egiozu: Muxu eman ahal dizut? (eta baiezkoa izatekotan) Zein lekutan? (eta errepikatu hau nahi beste aldiz).

- Xuxurlatu beste norbaiten belarrian zure belarrian aditu nahiko zenukeen zerbait.

- Beste pertsona batengana jo eta jarduera hau egitea proposatu egiozu: aurrez aurre jarri, eskuetatik helduta, eta elkarren begietara begira egon eta egon.

...

* Prototipo hau eraikiko dut eta zenbait apustu egingo dira horretarako, baina beti ere parte hartzen dutenen iradokizun guztiei zabalik egongo da, irteeran zerbait idatz dezaten XAMURTASUN BUZOIA egongo da..

PLANGINTZA:

2019 Azaroa:

Ikerketa, materialen bilaketa, argazki, bideo eta audioak egitea.

2019 Abenduak 1-20:

Instalazioa muntatzea, jendeari zabaldu hiru egunez.

Non:

Bilbon Histeria kolektiboak kudeatzen duen Karpinterian.

